



MIMAT

## **BALIO PROPOSAMENA**

- **Zer behar edo arazo konpontzen dugu?**

Gure enpresak behar bati aurre egiten dio. Gure ingurura begiratzean talentudun jende asko dagoela ikusi genuen. Haiek lotsagatik edo hura erakusteko aukera ez izateagatik, haien talentuari ez diote behar den etekina atera. Horregatik, jende guzti hori web gune batean biltzea erabaki dugu, haiek ezagunak izateko aukera emateko.



### **Ideiaaren iturria:**

- Lagun batek musika talde bat sortu nahi zuen, horretarako jende gehiago behar zuen. Horren ondorioz, mutil batekin kontaktuan jarri zen eta elkartu ziren. Baina hori, oso arriskutsua izan liteke.
  - Editorial batek, idazle batzuen liburuak idazleen baimenik gabe argitaratu zituen.
  - Kaleko jendeak, talentu handia daukala ikus daiteke, baina probetzurik ez diote ateratzen.
- **Zerk bereizten gaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa guri ordaintzeko prest?**

Bereizten gaituen ezaugarri asko ditugu, esaterako:

- **Pertsonalizazioa:** bezeroari moldatzen garelako eta lana errazten diegu, komunikazioaz arduratzen garelako.
- **Eskuragarritasuna:** hamazortzi urtetik aurrera edonork parte hartu dezake.
- **Erabilerraztasuna:** web orri oso sinplea izango da.

Baina ezaugarri guztien artean, honako hauek dira garrantzitsuenak:

- Desberdina da, bakarrik helburua lortutakoan etekin bat lortuko dugu.
- Arriskua murrizten dugu, segurtasunez arduratzen garelako, adibidez, geratuko diren bi pertsonen arteko informazioa biei eskaintzen diegulako.

